

# Hondamendi eremua

*Aberatsen globalizazioan leku bat bilatzen saiatuko dira Habanako batzarreko herriak*

Roberto D'Cristino / Habana

**Garrantzi handiko goi-bilera egingo dute aste honetan Habanan: 77en Taldea (G77) izenarekin batzen diren Hirugarren Munduko 133 herrialde-tako gobernuburu eta estatuburuak batzartuko dira. Goi-bilera bera aste-azkenean hasiko da, baina atzodanik herrialde horietako ordezkariak Kubako hiriburuan daude ministerioen arteko harremanak lantzen. Globalizazioaren garaian aurrera nola egin aztertuko dute.**

BILL CLINTON, Muammar Gadafi, Saddam Hussein, Slobodan Milosevic eta Omar Bashir areto berean bilduta, eta haiekin batera, Hirugarren Munduko herrialdeetako ehundik gora agintari. Anfitrioia, berriz, Fidel Castro.

Batzen hori teorikoki posible da; denboran atzera eramango gintuzkeen Einsteinein ontzia bezain posible. Guztiak daude 77en Taldeko aurreneko goi-bilerako gonbidatuen zerrendan. Errealitatearekin zerikusi gutxi du, ordea. Surrealistak ere ez liriateke hori imajinatzen ausartuko.

Hala ere, Kubak bizkor bezain eraginkor antolatutako Hegoaldearen goi-bilera ekumenikoa da ia-ia. Taldeko kide diren 133 herrialdeez eta Txinaz gain, Kubako agintariek beste 56 estatutako gobernuak ere gonbidatu dituzte, *hirugarren mundutarrren* klubetik kanpora daudenak —munduko industrializatuenak ere bai—. Israel



Olesegun Obasanjo Nigeriako lehendakaria atzo, Habanara iritsi berritan, Fidel Castro agurtzen.

kanpora utzi dute herrialde arabiarrek hala eskatuta.

Hondamendi eremua da hirugarren mundua: goseteak, izurriteak, gerrak eta lehortekak dira eguneroko ogia. Funtsen, hiru mila milioi pobre eta 25.000 hildako egunero. Puzzle handi bat. Kubak laguntza handia eman dio arlo guztietan puzzle horri trukean ezer eskatu gabe.

Taldeko kideen arteko elkarlan akordioak zaindu eta areagotzeko mekanismo bat sortzea interesatzen zaio Kubari. «Senide arteko anfitrioia besterik ez dugu izan nahi», adierazi du Jorge Bolaños Kubako Atzerri ministroak. Bera arduratu da goi-bilera prestatzeaz. Kubak kontsentsua lortzeko inoiz

baino interes handiagoa duela ematen du, baita horren truke irailean NBEko New Yorkeko egoitzan egingo den goi-bilerari begira egin dituen eskaerak murriztu behar baditu ere. Jarrera komun bat adostea irentsiak izatetik salbatuko lituzke Hirugarren Munduko herrialdeak. 1980ko hamarkadan kanpo zorraren krisi handia lehertu zenean hala gertatu zitzairen: alde biko taktika bonapartista eta banakako negoziazioaren bidez irentsi egin zituzten.

Esperientzia horren aurrean zordunen *cartel* bat sortzen saiatu zen Fidel Castro, batik bat, Latinoamerikako herrialdeena, eta guztien artean moratoria bat indarre-

an jartzen. Plan hark huts egin zuen, erradikalegia zelako, eta jarrera hori hartu behar zuten gobernuak zigor izugarrien beldur zirelako. Gaur egun, Hirugarren Munduaren kanpo zorra 2,5 bilioi dolarrekoa da.

Kubak Habanako goi-bileraren amaiera deklaratorako prestatu duen zirriborroak likidezirik ez duten herrialdeen ordainketak bertan behera uzteko eskatzen du, baina aldi berean —orekaren bila— Mendebaldeak 40 herrialde behartsuenei zorra barkatu izana goraipatzen du, nahiz eta haiena zor osoaren %10 baino ez izan. Zirriborroa haratago doa: zorpeztaren arrazoi estrukturalak kentzeko eskatzen du.

## ZIMBABWE

### Okupazio gehiago egin dituzte gerrako veteranoek

KOLONO zurien etxaldeak hartzen segitu zuten atzo Zimbabweco independentziako gerrako veteranoek, nahiz eta ekintza horien ondorioz, ia gerra zibila piztu den herrialde hartan. Askapen Nazionalen Gerra Beteranoen Elkarte bozeramaileek atzo jakinarazi zuten, gaur bertan ekingo diete berriro ere okupazioei. Robert Mugabe lehendakariaren babesa daukate okupatzaileek.

## ETIOPIA

### Jateko gehiago bidaliko du Europako Batasunak Etiopiarra

ETIOPIAKO gosetea izan zen Europako Batasuneko herrialdeetako Atzerri ministroek atzo egin zuten batzarraren gai nagusia, eta arazo hori konpontzen saiatzeko elikagai gehiago bidaltzea erabaki zuten. Hain zuzen ere, 542.000 tona jateko bidaliko dituzte Batasuneko estatuek. Horrez gain, aurrerantzean Etiopiako armen salmenta gehiago kontrolatzen saiatuko dira, Eritrea eta Etiopiaren arteko gerra nolabait bukatzeko.

## EKUADOR

### Altxamendu mehatxua berriro

PROTESTA masiboei egin beharko die aurre berriro ere Ekuadorko Gobernuak, Gizarte Segurantzaren erreformarekin ados ez dauden nekazariak protesta sorta handi bat prestatu baitute aste honetarako. 800.000 nekazari dira aseguru horretako kide eta Gobernuak pribatizatu egin nahi du.

## Aurreneko goi-bilera

**KOMUNEAN** zituzten arazoak aztertu eta aterabideak bilatzeko 1964an sortu zen G77 taldea, eta harrezkero hainbat harreman izan badiutze ere, estatuburuak gidatuta egingo duten aurreneko goi-bilera da hau.

Globalizazioa, iparralde-hegoalde zein hegoalde-hegoalde harremanak, nazio-

arteko ekonomiaren egoera eta zabalkunde teknologikoa izango dituzte mintzagai nagusi.

Gaur egun 133 herrialdek osatzen dute G77 eta haietatik erdietako estatuburuak baiezta dute batzarrean parte hartuko dutela; batik bat, Karibekoak, Afrikakoak eta Asiakoak dira agin-

tari horiek. Haien artean, Hego Afrika, Nigeria, Pakistan, Zimbabwe eta Vietnamgoak egongo dira eta baita Jasser Arafat palestinarren lehendakaria ere. Muammar Gadafi Libiako lehendakariak aurreneko aldiz zapalduko du Kubako lurra.

Garrantzi handiko beste bisita bat ere

izango du Fidel Castro Kubako lehendakariak: Kofi Annan Nazio Batuen Erakundeko lehendakariarena, hain zuzen ere.

Horien guztien artean, Castro Hirugarren Munduaren lidergoa eskuratzen saiatuko dela uste du zenbait analistak, aspaldiko bokazioa botaz.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak diruz lagundutako egunkaria